

## 3. gidoia: Ezberdintasunean bat eginda

### Gidoiaren laburpena

“Ezberdintasunean bat eginda” gidoian, Andoni eta Ainara beren ikastetxean dauden irisgarritasun-arazoak identifikatzen eta dokumentatzen ibiliko dira. Ikasleek premia bereziak dauzkaten ikaskideen zailtasunei buruzko informazioa bilduko dute hainbat puntutan, Ikasleen Kontseiluari hobekuntza-zerrenda bat aurkezteko helburuarekin.

### Helburu pedagogikoa

Gidoi honen helburu pedagogikoa da ikasleak eskola-ingurunean irisgarritasunaren eta inklusioaren garrantziaz sentsibilizatzea. Enpatia eta ekintza proaktiboa sustatzen dira ikaskide guztien baldintzak hobetzeko, eta nabarmentzen da aldaketa txikiek inpaktu handia izan dezaketela premia bereziak dituzten pertsonentzat eskola-bizitzako kalitatean.

### Eszenen taula

Eszena	Deskribapena	Elkarrizketak
<b>E00</b>	Desgaituentzako komuna, hondatuta. Andonik	<b>Andoni:</b> Zer gertatu da hemen? <b>Bedela:</b> Sentitzen dut; komuna hondatuta dago. Gutxienez ordubete beharko dut hori guztia konpontzeko.

	bedelarekin hitz egiten du egoeraren inguruan.	<p><b>Andoni:</b> Beste komun bat bakarrik dago egokituta, eta ikastetxearen beste aldean dago. Nola moldatuko gara premiak dauzkagun ikasleok?</p> <p><b>Bedela:</b> Eskola Kontseiluari behin baino gehiagotan esan diot komun egokitu gehiago behar ditugula, baina inoiz ez didate kasurik egiten.</p> <p><b>Andoni:</b> Halakoen premia daukaten ikaskide batzuk ezagutzen ditut. Ikastetxean dauden irisgarritasun-arazoen zerrenda bat egingo dut eta Ikasleen Kontseiluan aurkeztuko dut. Gainera, argazkiak erantsiko ditut, premia dagoela erakusteko.</p> <p><b>Bedela:</b> Ideia ona. Argazkiekin dokumentatzen baduzu, kasu handiagoa egingo dizute beharbada. Zorte on eskaerarekin!</p>
<b>E01</b>	Helburua: Egizu dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat hobetu beharreko elementuen zerrenda bat. LOKALIZAZIOA: Liburutegia - 360 panoramika	<p><b>Ikaslea:</b> Zaila egiten zait liburutegian ikastea, argiztapena oso kaskarra da-eta. Batzuetan buruko mina jartzen zait, edo, irakurtzean, nekatu egiten zait ikusmena.</p> <p><b>[HOTSPOT:</b> Luminaria]</p> <p>Fitxa: Argiztapena - Funtsezkoa da ikasgeletan argiztapena egokia izatea ikusmen-arazoak dituzten pertsonentzat. Gainera, besteak beste arbelek eta ordenagailuek irisgarriak izan behar dute denentzat. Iradokizunik ba al duzue hori hobetzeko?</p>
<b>E02</b>	Helburua: Egizu dibertsitate funtzionala duten	<b>[KORRIDOREA]</b>

<p>pertsonentzat hobetu beharreko elementuen zerrenda bat. LOKALIZAZIOA: Korridorea – Ikasgelaren 360 panoramika – 360 panoramika</p>	<p>Korridoreko ikaslea: Irten egin behar izan dut eskolatik, urduritzen ari nintzen-eta. Euskara-irakasleak ezin azkarrago hitz egiten du, eta ezin dut jarraitu; zeharo zapuztuta sentitzen naiz.</p> <p><b>[IKASGELA]</b></p> <p><b>Irakaslea</b> [AZKAR-AZKAR]: Andoni, Ainara... Ez zaituztet ikusi. Zertan zabilzate, ikastetxeko zerbaitetarako argazkiak ateratzen? Ados, nahi duzuen lekuan jar zaitezket; baina, mesedez, eskola amaitu arte, ez molestatu eta ez egin zaratarik.</p> <p>[Irakaslearen gainean sakatuz]</p> <p><b>Ainara:</b> Nekane, ikasteko zailtasunak dituzten ikasle batzuek esan dute asko kostatzen zaiela zure eskolak jarraitzea, oso azkar hitz egiten duzulako. Pixka bat polikiago hitz egin al zenezake?</p> <p><b>Irakaslea</b> [POLIKIAGO]: Benetan? Egia esan, ez naiz konturatu. Kontu handiagoa izango dut eta gainerako irakasleei ere aipatuko diet.</p> <p><b>Fitxa:</b> Ulermen-arazoak - Ez-hitzezko ikaskuntza-nahasmendua duten ikasleentzat funtsezkoa da irakasleek azalpenak argitasunez eta erritmo egokian ematea, ikasgaia hobeto ulertu ahal izateko.</p> <p><b>01ikaslea</b> DARKSIDE: Ez naiz ezertaz enteratzen ari!</p> <p><b>02ikaslea</b> DARKSIDE: Ze astuna! Gero historian piper egingo dut, bai ala bai.</p>
---	--

		<p><b>03ikaslea</b> DARKSIDE: Hemendik ez dut esaten ari dena entzuten. Ez da atsegina beti apunte eske ibili behar izatea...</p> <p><i>[Lehenengo lerroko mahai batean sakatuz, 03ikaslearen gainean sakatu ondoren]</i></p> <p><b>Fitxa:</b> Entzumen-arazoak - Entzumen-arazoak dauzkaten ikasleek irakaslearengandik gertu eseri behar dute, eta irakasleak ozen hitz egin behar du. Kasu larriagoetan, entzumen-aparatuak behar dira, hala nola audifonoak edo kokleako inplanteak.</p>
<b>E03</b>	<p>Helburua: Egizu dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat hobetu beharreko elementuen zerrenda bat. LOKALIZAZIOA: Laborategia - 360 panoramika</p>	<p><b>01ikaslea:</b> Uste dut pasatu egin naizela sufre-kantitatearekin.</p> <p><b>Narrea</b> (hondoan): E, Andoni, Ainara! Etorri hona!</p> <p><i>[Hondora joateko botoia sakatzean, mezu bat agertuko da, esanez ezin dela bertatik pasatu estu dagoelako]</i></p> <p><b>Andoni:</b> Ezin naiz pasatu. Mahaien arteko tartea estuegia da; ez dago lekurik!</p> <p><b>Fitxa:</b> Espazioa - Mugikortasun urriko pertsonentzat, garrantzitsua da mahaien eta aulkien artean gutxieneko tarte bat egotea. Gomendagarria da, halaber, altuera doigarria duten mahaiak edukitzea.</p>
<b>E04</b>	<p>Helburua: Egizu dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat hobetu beharreko elementuen</p>	<p><b>Fitxa:</b> Arrapala: Funtsezkoa da pertsona guztiei sarbidea erraztea, haien egoera fisikoa edo ingurunea edozein izanda ere. Beste elementu batzuek ere (hala nola zakarrontziek eta ateen) erabilera errazteko neurri egokiak izan behar dituzte.</p> <p><b>Andoni:</b> Ikasle batzuek zailtasunak dituzte eskolan sartzeko, arrapala egokirik ez dagoelako.</p>

	<p>zerrenda bat. LOKALIZAZIOA: Ikastetxearen sarrera - 360 panoramika</p>	<p><b>Ainara:</b> Ikasle batzuentzat oso astunak dira ateak, eta irekitzeko konplikatuak.</p> <p><b>Andoni:</b> Dirudenez, institutuan irisgarritasuna hobetzeko iradokizunen zerrenda egokia daukagu jada.</p> <p><b>Ainara:</b> Bai, ideia horiek ikasleen kontseilura eramateko garaia da. Goazen entzunaretoa!</p>
<b>E05</b>	<p>Entzunaretoa – Zinematika Eszena musikarekin eta travellingarekin amaitzen da, Andoni eta Ainara entzunaretoan beren proposamenak aurkezten ikusten direla.</p>	<p><b>[KOROLARIOA]</b> Pantailako testua: "Inklusioa aldaketa txikiekin hasten da. Elkarrekin, denok baloratuak eta babestuak sentiaraziko gaituen ingurune bat sor dezakegu. Aniztasunak aberastu egiten gaitu!"</p>